

## GIL 92 Lagako hondartza eta dunak



Lagako hondartzaren ikuspegi osoa, panela dagoen begiratokitik. Atzean, Arnarri muinoa eta Ogoño lurmuturra.

### Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 24' 34,34" N

Long.: 2° 39' 29,67" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 527.670,46 m

Y: 4.806.351,63 m



### Nola iritsi

Gernika-Lumotik, hartu BI-2238 errepidea, Lekeitiorantz, eta, Gautegiz-Arteagara iritsitakoan, desbideratu N-rantz, BI-3234 errepidetik, Lagako hondartzarantz; han, dunen atzean aparka daiteke.



Hondartza eta leheneratzen ari den duna-sistema.

## Deskribapena

Urdaibai Biosfera Erreserbaren barruan turista gehien hartzen dituen tokia da Lagako hondartza. Arnarri puntak mugatzen du ekialdetik, eta Antzora lurmuturrak mendebaldetik; 600 m luze da ertz batetik bestera. Antzora eta Ogoño kareharrizko lurmuturren arteko kostaldeko sargunerik handiena da, eta zorupeko diapiroan dauden buztin triasiko bigunen higadura diferentzialaren eraginez sortu da. Diapiroaren lekuko ageria ofiten eta arroka subbolkanikoen azaleratze txiki bat da, hondartzaren erdialdean nabarmentzen dena (errepidearen atzealdean ere azaleratzen dira).

Zuzenean itsasora irekita dagoen hondartza bat da, olatuek zuzenean jotzen dutena, eta, haizearen eraginez, duna-sistema txiki bat du hondartza atzeko zona supralitoralean, zeina leheneratzen ari baita aurrez jasan duen presio turistikoa eta dunen gainean zeuden ekipamenduak kendu eta gero.

## Behatzeko punturik onena

*In situ.*

## Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 14, GIL 100, GIL 104.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 89, GIL 90, GIL 91, GIL 92, GIL 93, GIL 94, GIL 95.



Itxituraren xehetasuna eta duna-sistemaren leheneratzea azaltzen duen kartela.

## GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
<b>Interes zientifikoa</b>	Geomorfologikoa				●
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafiko/Sedimentologikoa		●		
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
<b>Interes ekonomikoa (erauzketa)</b>			Iraganean	Potentziala	Martxan
<b>Interes kulturala:</b>					
<b>Oharrak:</b>					



Ofiten azaleratze bakartu bat hondartzan, Lagako diapiroarekin erlazionatua.

## Bibliografia espezifikoa

- Mencia, M., Aranburu, A., Carracedo, M., González, M.J., Monge-Ganuzas, M. eta Pascual A. (2010). *Lugares de Interés Geológico de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Urdaibai Biosfera Erreserba, Eusko Jaurlaritza, 182 or. <http://www.euskadi.net/geodibertsitatea>.
- Mencia, M., Monge-Ganuzas, M., Díaz, G., González, J. eta Albizu, X. (2011): *Guía de lugares de interés geológico de Urdaibai*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 341 or.